

## Santa Zezilia ospatu du Uharkak



Azaroaren 22a Zezilia Santuaren eguna da, musikari eta kantari guztien zaindari. Azken urteotan egin ohi duten moduan, herriko Uharka koruko kideek elkarrekin ospatu zuten. Azaroaren 21ean, larunbatean, Oiharten elkartu ziren afaltzeko. Afalostea, berriz, bestela ezin zitekeenez, kantuz alaitu zuten.



### ONA txartela ateratzeko kanpaina

Administrazioarekin lotura duten hainbat eragiketa egiteko balio duen ONA txartela ateratzeko modua dago Zeraingo Udalean. Hil honetan hasi eta urtarrilaren amaiera arte egongo da txartela eskatzeko epea zabalik. Horretarako, udaletxera goizez gerturatu beharko da interesa duenak, eta NAN eta Osakidetzako txartela aurkeztu beharko ditu. Edozein zalantza argitzeko Udalera jo daiteke.

## Lapurreta egin dute Mandio dendan eta tabernan

Joan den azaroaren 10etik 11rako gauean, berriz ere lapurren bisita izan genuen Zerainen. Oraingo honetan Mandio aldean egin zuten azioa. Tabernako alboko atea indarrez ireki zuten sartzeko, baina aurrez alarman kableak moztu zituzten. Tabernatik dirua, ordenagailua eta disko gogorra eramane zituzten. Tabernatik dendara ere igo ziren. Hankaz gora jarri zituzten hango armario, paper eta gainerakoak. Eta azkenean, kaxako dirua eramane zuten.

Mandioko tabernan eta dendan ez ezik, kultur etxean sartzen ere ahalegindu ziren. Lortu ere lortu zuten, kultur etxeko bi sotoetan sartzea, baina zorionez, ez zuten ezer lapurtu. Ez da lehen aldia lapurrak gure inguruan dabilzana, ea azkena den.



Horrelaxe hustuta utzi zuten diruaren kaxa Mandion.

# Ganaduak mendi larreetara edo partzonerira igotzeko eskaeren garaia da

**H**erriko ganaduzaleek Gipuzkoako eta Arabako partzonerian edo herri larretan ganaduak eduki nahi badituzte, udaletxean eman behar dute izena. Datorren urtean, 2010ean, partzoneriko herri-lurretan ganadua erabili nahi dutenek abenduaren 30a baino lehen eman behar dute izena udaletxean. Zeraingo herri larreetara ganadua bota nahi dutenek, berriz, abenduaren 19 arteko epea dute udaletxean izena emateko.

Izena emateko asmoa dutenek hainbat dokumentu eraman behar dituzte udaletxera. Lehenengo aldia dutenek honakoak aurkeztu behar dituzte:

- Nekazaritza Ustiakuntzako txartelaren kopia.
- NAN kopia.
- Ganaduaren identifikazio agiria.



-Larreetara igoko den ganadu kopurua.

Aurrez ere partzonerian ganaduak erabiltzen badira:

-Larreetara igoko den ganadu kopurua.

-Abereen identifikazio agiria.

Foru Aldundiak gogorarazten duenez, izena eman gabe ganaduak herri-larreetan erabiltzeak dirulaguntzak galtzea ekar lezake.

## Turismoari buruzko antzerkiak plaza alaitu zuen



Urriaren 31n, larunbata, kale-antzerkia izan genuen Zeraingo plazan. Basketourrek antolatuta, turismoko praktika onen manuala sustatzeko

antzerkia eskaini zuen Trapu Zaharrak taldeak. Nahiko barre eta algarra eragin zieten plazara gerturatu ziren herritar eta turistei.

### Medikuaren oharra

Gripe Aren aurkako txertoa hartzeko egun bakarra izango dugu zeraindarrrok: abenduaren 2a. Goizeko 9:30etatik 14:30etara bitartean Segurako anbulategira jaitsi beharko dute txertoa hartu nahi dutenek, aurrez 943 027700 telefonoan txanda hartuta. Gogoratu, txertoa gaixotasun kronikoa dutenentzat bakarrik dela.

### Gazte barrikotea

Azken urteotako ohitura onari jarraituz, aurten ere barrikotea antolatu dute Zeraingo gazteek abenduaren 12rako. Joan nahi dutenak jar daitezela harremanetan Xabi aguazilarekin.

### Mandio esku berrietan

Mandio taberna Mendiko Ibanek eta Eiderrek kudeatuko dute datorren abendu hasieratik aurrera, Udalaren lehiaketa irabazi ostean.



Galtzen ari diren hitzak

## Gilba, gilbea

**D**efinizio hau eman dio Elenak hitzari: "gauza txikia; zerbaiten izpiak". Gauza asko izan litezke txiki, eta gauza askotxok ditu izpiak. Aukeran lauso samarra gertatzen da, horregatik, definizio hori. Ez dago iluntasun bildurrik, ordea. Berehala etorri dira argibideak, izan ere. Hiru aplikazio konkretu eman ditu Elenak, hitz hori dela-eta. Laugarren bat erantsi dio hitzari Xanti Larraondok, gaur goizean mendi-buelta eginez Barnaolatik Arizmendira bidean gindoazela. Laurak ikusiko ditugu, eta berehala argituko dugu kontua. Gatozen, lehenik, Elenak herrian jasotako hiru adibideetara:

a) *elur-gilba*: elur txikia edo elur-izpi(a)k. Honelako esaerak jaso ditu bere bilketa-lanean: "elur-gilbak hasiz dago", edo "elur-gilba batzuk besterik ez du egin". Elenaren esanean, mardulago ari duenean *elur-maluta* esaten zaio horri herrian. Euria ari duenean, aldiz, ez omen da *gilbarik* inoiz aipatzen: *euri-mintzak* esaten omen zaio horri.

b) *hari-gilba*: askotan esaten omen da hori Zerainen, hari-puntak adierazteko. Honako bi adibideok bildu ditu Elenak: batetik "josten aritu naiz eta hari-gilbak dauzkat orain arropetan"; bestetik "zaude! Hari-gilba bat daukazu gona-barrean".

c) *hauts-gilba*: hori ere ezaguna da nonbait, adin batetik gorako zeraindarren artean. Adibide hau bildu du berak: "erratza garbitu behar dut, gilbak uzten ditu-eta".

d) *pinu-orratzen gilba*: pinu-ostok edo pinu-orratzak, erortzeko zorian daudenean edo erori berritan, gilba modua sortzen dute. Hala adierazi du Xantik, bide-bazterreko pinu-adarretik zintzilik zegoen gilba bat seinalatuz.

Garbi dago, beraz, *gilba* zerainda-



Elur-gilbak Zeraingo plazan, joan den neguan

rrentzat zer den. Zer den edo, batez ere, orain gutxira arte zer zen. Gazteek apenas dakiten, hitz hori zer den edo zer esan nahi duen. Gauza txikia da gilba, Elenak zioen moduan, eta izpi modukoa da.

Nongoa da hitza? Ba al ditu antzeko formak? Orotariko Euskal Hiztegiara jo dugu, zer ote dioen ikusteko. Informazio argia eta zehatza jaso dugu. Has gaitezen lekuarekin: Goierrikoa da, batez ere, hitza. Azpeitian eta Loiolan ere jasorik dago adibideren bat edo beste, baina gehien-gehienak Goierri alde honetakoak dira. Antzeko formarik badu: *gilbo* edo *gelbo*. Ataunen, esate baterako, badirudi *gelbo* forma ezagunagoa dela *gilba* edo *gelba* baino.

Eta adiera? Zer dio horretaz OEHK? Batetik, erdarazko *centella*, *chispita* edo *copo*. Oso ondo ezkontzen da adiera multzo hori *elur-gilbarekin*. Bestetik, *hilacha* edo *pelusa*. Hori ere bete-betean lotzen da Elenaren hari-gilbarekin eta hauts-gilbarekin. OEHK berak, konkretuki, adibide hauek ematen ditu: batetik "gilboz bete zait soiñekoa", bestetik "zirki-lluak gelboaz arindu". Azkenik, Xantik esandako *pinu-gilbarentzat* egokia dirudien definizio hau dakar hiztegiak: "arista que el viento lleva".

Argi dago beraz: maiz erabilitako hitza da *gilbea* edo *gilboa* (*gelboa*) Goierri alde honetan. Hedadura semantiko handi samarra izana du, eta bistan da zergatik: hitz hori ez zitzaion erreferente material konkretu bati lotzen. Aitzitik, materia askotxoren forma-itxura laburra, punta edo hondakina adierazteko aplikazioa zeukan berekin. Apenas, orain, hitz-elkarte berririk sortzeko inork *gilbarik* erabiltzen duen: ba ote da herrian, adibidez, *tabako-gilba* edo *tabako-hautsaren gilba* esaten duenik? Erabiltzen ez badu ere, ba ote da herrian inor, entzun ahala horren esanahiaz jabetuko litzatekeenik? Apenas: gainbera dator *gilba*, bakoitza bere motiboaz gorabidean datozen bezala *pasada* eta *irizpidea*. Hizkuntzaren beraren barne-bizitasuna (bizitasun horren maila apala) transformazio-aldi bizia aditzera eman dezakete, seguru asko, bataren gainbeherak eta besteen igorak. Euskaraz egiten dugu, bai. Baina ez dugu aurrekoen hitz-altxor aberats hartatik zati bat baizik erabiltzen. Horrelakoa da, itxuraz, Elenak gaurko saiora aukeratu digun *gilba*.

Mikel Zalbide eta  
Elena Mendizabal



## Xagu-txoko



Babesetik

URRIA	al	ar	az	og	or	lr	ig
				<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
Euria (l/m)	GUZTIRA: 86,25L			0,25	0	0	0
C° altuena	ALTUENA: 27°			22	21	21	26
C° baxuena	BAXUENA: 1°			15	15	9	10
	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>
Euria (l/m)	0	0	0	17	0	0,5	5,5
C° altuena	25	27	27	23	22	22	21
C° baxuena	18	21	21	19	12	15	15
	<b>12</b>	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>
Euria (l/m)	2,5	0	0	0	0	0	0
C° altuena	19	18	17	15	13	15	15
C° baxuena	15	7	5	6	2	4	2
	<b>19</b>	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>
Euria (l/m)	0	11	0	31,5	11	1	6
C° altuena	16	16	17	16	15	22	19
C° baxuena	1	14	7	10	9	11	15
	<b>26</b>	<b>27</b>	<b>28</b>	<b>29</b>	<b>30</b>	<b>31</b>	
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	
C° altuena	20	24	22	23	23	22	
C° baxuena	14	7	11	13	11	13	

### Urria dotorea

Urrian giro epela eta nahiko lehorra izan ditugu. Eguraldi dotorea izan dugu eta ehizerako nahiz perretxikutarako egun eder asko egin ditu. Batzuek beste batzuek baino zorte hobea izan dute, hala ere. Xabi, Andoitz eta Igor (argazkia ateratzen) ez daude kexatzeko moduan.



## Gaztaina eta talo janak azaroan



Azaroaren 7an, larunbata, gaztaina eta talo jana antolatu zuen Basarte Guraso Elkarteak eliz atarian. Ume, guraso eta gainerako herritarrek taloak eta gaztaina erreak festa giroan jan zituzten. Porrotx laguna ere inguratu zen festara



Azaroaren 20an egindako gazteen gaztaina janean umore ederra egon zen.

## Partzoneriko egur-loteak

Sutarako egur-loteak eskainiko ditu laster Gipuzkoa eta Arabako Partzoneriak. Zeraingo herritarrek sutarako egur tona 34,86€ ordainduta etxean jasotzeko aukera izango dute, baina gutxienez kamioi-bete egur (15-16 tona) eskatu behar dute. Interesatuak azaroaren 30 arteko epea dute udaletxean eskaera egiteko.

## Ile mozketa etxean

Errementariko Urko Apaolaza ile-apaintzaileak etxez etxeko ile mozketa zerbitzua eskaintzen du. Hala nahi dutenek 647588115 telefono zenbakira deitu diezaiokete eta Urkok ilea moztuko die etxera joanda.

## Bolen plastiko bilketa

Orain arte bezala, ikasturte honetan ere, belar-bolen plastikoak hileko hirugarren asteartetan bilduko ditu Sasietak ohiko lekuetan. Datorren bilketak abenduaren 15ean, urtarrilaren 19an eta otsailaren 16an izango dira.